

Haur ikuskizunak

Ganbaran

Ipuin kontaketa, antzerkia eta txotxongiloak

nahasten dira Ganbaran.

Ingurugiroa zaindu beharra eta irakurzaletazuna bultzatzen duen ikuskizuna.

“Bazen behin liburuz beteriko ganbara bat, haur kuxkuxeroak haraino igo eta...”



Kikilisalda

Kontalaria eta musikaria umeen aurrean, Pertsonaia nagusien ezaugarriak aurkeztuz eta elezhar batzuk kontatuz.

Zuzeneko musika, mitologiaren inguruko abestiak eta jai giroa (dantzatzeko jardunak)

Irudien laguntza izango dugu pantaila baten bidez eta baita joku batzuk egiteko aukera ere...



Musikabirintoa

Antzerkia, zuzeneko musika eta azken teknologia nahasten da (irudien proiektzioak, soinu efektuak...).

Ikuskizun positiboa, gizatasunez josita, ingurugiroa zaintzeko garrantzia aipatzen duena, bakoitzaren ametsak lortzearen garrantzia lantzen duena, laguntasuna eta gauza txikien garrantzia bultzatzen duena, telebista, bideojoku eta gizarte modernoaren arriskueta jabetzen diguna.



Rock-Eroak

Malabarrak, antzerkia, sketxak eta batez ere barre algarak beteriko ikuskizuna dugu hau.

Bi protagonista xelebreak Rock kontzertu bat aurrera eraman nahian; gertakizunak, pasadizoak, hainbat pertsonai eskenatokian eta publiko artean... Dibertigarri oso suertatzen da azkenean ikuskizuna, baina lortuko al dute haien nahia asetzeara?



Burutik jota

Zirku ezin handiagoa, Goitik Beherako Zirkua, heldu da azkenean zure hirira. Hau deskalabrua!!! Pista zikin-zikin dago eta artistak ez dira oraindik etorri. Lasai ibili gero, ez baitzarete ikuskizunik gabe geratuko. Fulanito eta Menganito garbitzaileak horretaz arduratuko baitira. Nola bukatuko da guzti hau burutik jota baldin badaude?



Bola bai!

Bola bai-k! mundu magiko batean murgilduko gaitu.

Kuriositateen bilatzaile bat pilota batengatik liluratuko da, eta horrek giltzaz eta kandaduz betetako bide batetatik eramango du; Bide honetan irekitzen den ate bakoitzarekin emozioz salto egingo dugu, eta azkenean pilotak gordetzen duen sekretua zein den jakingo dugu.



Pack-Man Dantz

Zatoz dantza egitera!.

Baina hemen ez duzu edozein dantzaldi topatuko...ez ez!

Hau *Pack-Man Dantz* da! Argiak, efektuak, dekoratua eta animatzaileak prest daude. Eta noski zuen gustuko musika ez da faltako, bai, bai, haurrek gogoko duzuen musika, ez helduek nahi dutena... Hala haiek ere martxosoak izan daitezke?



Mugi boogie

Parranda berezi batekin dator Dj Nai adin guztietako umeentzat. Dantza eta algara gehien gustatzen zaizkien erritmoekin. Eta hori ez da dena! Oso Dj berezia dugu gaurkoan gure artean; pailazoa ez da ez, baina asko gustatzen zaio pailazoarena egitea!

Ekar itzazu dantzatzeko gogoak eta... Mugi Boogie!

